

XV. URTEA

38. zenb.

1997 URTARRILA - APIRILA
715 pta. - 29 libera



Gazteak eta euskararen erabilera urria. Debako kasua

Porrota euskaltegian

Kurrikulua, mamu berri hori

Baliabide teknologikoen erabilera hizkuntzen irakaskuntzan

Internet eta hizkuntzen irakaskuntza

Zertan datza kontzientzia metalinguistikoa?

Kalitatea gure esparruan

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

HIZPIDE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilabetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **HIZPIDE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki, jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **HIZPIDE**k erronka. Amaitzeko, esan **HIZPIDE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

HIZPIDErako lankidetzak

HIZPIDEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze-gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnzentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitaratu.

HIZPIDEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alarreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

- *Editorial-gaiak eta harpidetzak:*

HIZPIDE

Vitoria-Gasteiz, 3

20009 Donostia

Tel.: (943) 41 26 00

Fax: (943) 21 26 01

Zuzendaritza

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua

Koordinazioa

Heziketa-atala

Koordinatzailea

Josu Perales

Heziketa-atala

1997rako prezioak

Ale bakoitza: 715 pta.- 29 libera

Hazpidetza: 1.660 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

Zedro plaza 2-1. C

20016 - Donostia

Inprimategia

Flash Composition, S.L.

Rekalde zumardia 6

48009 Bilbo

Legezko Gordailua

SS-745/96

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra, HABE.

I.S.S.N. 1136-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Ikerketak

Nekane Goikoetxea Gazteak eta euskararen erabilera urria. Debako kasua 3

Mertxe Berastegi Porrota euskaltegian 20

Bestelako lankidetzak

Luis Mari Txabarri Kurrikulua, mamu berri hori 33

Mercè Bernaus eta Paquita Vidal Baliabide teknologikoen erabilera hizkuntzen irakaskuntzan 53

Mikel Melero Internet eta hizkuntzen irakaskuntza 58

David Lasagabaster Zertan datza kontzientzia metalinguistikoa? 74

Iñaki Murua Kalitatea gure esparruan 85

Liburuak eta aldizkariak

• Liburuak

- Felix Sainz* *Competencia comunicativa. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras*
(M. Llobera y otros) 105
- Tony Duffy* *The self-directed Teacher: Managing the learning process*
(D. Nunan & C. Lamb) 106
- Tony Duffy* *Performance and Competence in Second language Acquisition*
(G. Brown, K. Malmkjaer & J. Williams) 107
- Artikulugileentzako irizpideak 108

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hiru ale: 1.660 pezeta.)
Honela ordainduko dut:

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20009 Donostia

Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20009 Donostia



Aurkezpena

Hona hemen, irakurle, eskuartean duzun alearen mamia.

Ikerketak.— “Gazteak eta euskararen erabilera urria. Debako kasua”. Horixe da Nekane Goikoetxeak jorratzen duen gaia. Artikuluak ikerketa sakon baten berri ematen digu. Debako Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta, arazo erreal bati, hots, bertako gazteen euskararen erabilera urriari aurre egiteko lehen urrats bezala ekin diote ikerketa honi. Gauza jakina da euskararen ezagutzaren eta erabileraren ehunekoak bat ez datozela eta, Nekane Goikoetxeak dioskunez, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea are nabariagoa da Debako gazteen artean. Honen zergatia eta gazteak euskararen erabilerara sustatzeko eskuhartze-programa baten hasimasiak zein izan litezkeen iradokitzen ditu bere artikuluan.

Mertxe Berasategik bere aldetik euskaltegietan ari diren zenbait helduk euskara ikasteen zergatik egiten duten pott aztertzen du “Porrota euskaltegian” izeneko artikuluan. Landa-lana ikasleekin beraiekin burutu du zuzenean eta datu estatistikoak nahiz ikasleekin beraiekin osatutako eztabaida-taldeetan jasotako iruzkinak aztertzen ditu. Azkenik, emaitzen argitan euskaltegiaren geroan urratu beharreko bideaz gogoeta egiten du artikulua egileak.

Bestelako Lankidetzak.— Oinarrizko tresna da kurrikulua zalantzarik gabe edozein heziketa-sisteman. Halaxe da hizkuntzen irakaskuntzan eta, jakina, euskararen irakaskuntzan ere. Sakonetik jorratzen du Luis Mari Txabarrik gai hau “Kurrikulua, mamu berri hori” izena duen artikuluan. Izan ere, hari ugariko mataza dugu kurrikulua, eragile askorenean baitago. Lotura eta elkarreagin horiek guztiak gogoan hartu eta kurrikulua bera garatzeko behar diren baldintzak baita hori eguneratzeak zer dakarren ere aztertu du Luis Mari Txabarrik.

Mercè Bernaus-ek eta Paquita Vidal-ek, beren aldetik, baliabide teknologikoen erabilerari egindako gainbegirada eskaintzen dute, tresneria berriak eskain dezakeena ahalik eta emankorren ustiatzeko gogoetara sustatu asmoz.

Maiz samar ari gara entzuten azkenaldi honetan Internet sare informatiboaren hainbat ipi-apa. Eta, informazioa garraiatzeko tresna ahaltsu hau hasia da, jada, abiada handian gainera, bere lekua hartzen hizkuntzen irakaskuntzan. Internet zertarako eta nola sortu zen, sareari nola lotu, zer egin dezakegun, nolako baliabideak dituen... kontatuko digu Mikel Melerok “Internet eta hizkuntzen irakaskuntza” artikuluan. Artikulugileak Interneten abantailez eta mugez ere egiten du gogoeta, gauza berri orok sor lezakeen lilurapean erori gabe. Hizkuntz irakaskuntzan egun nola erabiltzen den eta euskararen kasuan nola erabil lite-

keen ere azaltzen du. Amaitzeko, euskara eta euskal gaiekin zerikusirik duten hainbat helbide elektronikoren berri dakar.

David Lasagabasterrek, berriz, kontzientzia metalinguistikoaren gaia jorratu du teoriaren aldetik terminoa zehatzuz eta baita ikasgelarako hainbat ariketa ere proposatuz. Hizkuntzak komunikazio-tresna diren heinean, mezuari erreparatzeak garrantzia handia du, zalantzarik gabe. Baina hizkuntzari berari buruz hausnarketa egitea ere onuragarria da. Horra hor bi alderdiak egoki uztartuz lortu beharreko oreka.

Badago kontzeptu bat irakaskuntzan ere gero eta munta handiagokoa dena. Kalitateaz ari gara, hain zuzen. Kontzeptuaren bilakaera historikoa, zerbitzuen munduan nola kokatzen den irakaskuntzan eta euskaltegien munduan izan dezakeen aplikagarritasuna, eta, maila zehatzagoan talde-lana, motibazioa, ebaluazioa... bezalako kontzeptuak aztertzen ditu Iñaki Muruak.

Liburuak eta aldizkariak ohiko sailarekin ematen zaio amaiera oraingo aleari.